

MUSKIZ ALDIZKARIA

/ 20. aldizkaria
2016ko urria



*Muskizko XXXIV.
Nekazaritza
Azokaren
arrakasta*

/3. orrialdea

*Eskolako
materiala
erosteko
laguntzak*

/2. orrialdea

*Ikastetxeen
mantentzerako
inbertsioa*

/4. orrialdea

*LED argiak
Muskizko auzo
guztietan*

/5. orrialdea

*Elkarrizketa
Muskizko Otsoak
Tenis Kirol
Elkartearekin*

/6. orrialdea

Editoriala

Hezkuntza: adostasuna, elkarrizketa eta egonkortasuna

Muskizek aurrera egiten jarraitzeko oinarriak adostasuna, elkarrizketa eta egonkortasuna dira. Ezinbestekoa da pertsona guztiak kolaboratzea, bakoitzak bere aukeren arabera, herria egiten jarraitzeko eta gero eta hobea izango den bizi-kalitateaz gozatzeko.

Gure kezka nagusiak hezkuntza, jardue-
ra ekonomikoa eta enplegua, eta gizarte
politikak dira, eta, horregatik, alderdi ho-
riek sendotzeko ahalegina egiten dugu.

Udalak hainbat jarduerara egin ditu
hezkuntzaren alorrean: eskolako materia-
la eskuratzeko laguntzak, institutu berria,

**“Pertsona guztiak
kolaboratzea
funtsezkoa da,
herria egiten
jarraitzeko**

ikastetxeetarako inbertsioak, laguntza
ematea zailtasunak dituzten ikasleei...
Dena dela, badakit oraindik asko dagoela
egiteko, eta hori motibazioa da niretzat eta
nire taldearentzat, alor horretan hobetzen
jarraitzeko, baita gainerakoetan ere.

Ondo trebatutako gazteak izateko ahale-
ginak oso garrantzitsuak dira. Uste osoa
daukat prestakuntza herri hobeak egite-
ko oinarria dela, izan ere, herria bertako
biztanleen emaitza da. Hezkuntzak iriz-
pideak osatzen, solidarioak izaten, bes-
tearen azalean jartzen (enpatizatzen)
laguntzen digu, eta horiek funtsezko
gaiak dira elkarrizketarako eta adosta-
sunerako gaitasuna izateko.

Elkar ulertzeko eta elkarrekin norabide
berean abiatzeko gakoak adostasuna,
elkarrizketa, egonkortasuna eta “pres-
takuntza” dira.

Muskizek merezi du.

Borja Liaño Abarrategi
Muskizko alkatea



GHELen kontratua luzatu da

Gizarte eta Hezkuntza arloko Esku-har-
tze Lantaldearekin (GHEL) daukan kon-
tratua luzatu du Udalbatzak, eskainitako
zerbitzuek harrera bikaina izan baitute.
Programaren ardatza haurrei, gazteei
eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuan
dauden pertsonen babes ematea eta
arrikupean dauden emakumeen lagun-
tzea da, Berdintasun eta Giza Eskubideen
Sailaren bidez. 2015. urtean, 36 familia
eta elkarbizitza-unitate horietako 45
adingabe artatu dira. Bestalde, banakako
jardueren dagokienez, beste 13 gaztek har-
tu dute parte. Besteak beste, tailerretan,
hitzaldietan eta familientzako txangoetan
250 helduk hartu dute parte.



20.000 euro, eskolako materiala eskuratzeko laguntzetarako

Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko
Bigarren Hezkuntzan dauden haurren
senideek eskolako materiala erostegatik
sortutako defizit ekonomikoa arintze-
ko laguntza-programa onartu du Uda-
lak. Partida 20.000 eurokoa da guztira;
2012ko ekitaldiaz geroztik, lehenengo
aldiz handitu da zenbateko hori, Muskiz-
ko ahalik eta familia gehien artatu ahal
izateko. Laguntza horien oinarri gisa
ezarri da banakako laguntza bakoitzak
ezin izango dituela 180 euro gainditu,
eta familia-unitateko kideen eta bertako
diru-sarreraren arabera esleituko direla.

XXXIV. Nekazaritza Azoka

Muskizko Nekazaritza Azokan ateri izan
zen, eta herritarrek aukera izan zuten
Bizkaiko landa-eredu oparoaz, bertoko
abeltzaintzaz eta artzain-txakurrek aha-
teekin egindako erakustaldiaz gozatze-
ko. Erakustaldi horretan, txikienak izan
ziren protagonistak.

Probintziako azoka garrantzitsuene-
tako den XXXIV. edizioan,
Bizkaiko Txakolinaren Urrezko
Domina Zallako Jose Domingo
Txabarri upategietako Abeitz
2015 txakolinari eman zitzaion.

Era berean, antolakuntzak 800
eurotik gora banatu zituen ber-
toko abeltzaintzako lehiaketan

parte hartu zutenei emandako sarietan.
Atal nagusiari dagokionez, Miguel Án-
gel Rodríguez-en Violeta moxalak irabazi
zuen bi urte edo gutxiagoko animalien
kategoria; 6 urtetik beherakoen katego-
riako zaldirik onena Orlando Celaren
Iru izenekoa izan zen, eta behor onena-
ren saria Roberto Rodríguez-en Saharak
irabazi zuen.





Aurrekontu parte-hartzaileak

Gobernu Irekiko zinegotzigoa sortu ondoren, Muskizen lehengo aldiz, 2017ko urteko udal aurrekontuen eraketan herritarrek ideiak emateko ekimena abiarazi du Udalak, beste hainbat ekintzarekin batera. Inprimakiak udaletxeko bulegoetan edota Lerro Berdeko postontzien bidez aurkeztu daitezke; formatu elektronikoa hautatzen dutenek, aldiz, Udaleko webgunean irado-

kizunak egiteko aukera izango dute, baita USB, CD, SD txartelak edo DVD bezalako memoria-euskarriak udaletxeko bulegoetan aurkeztuta ere.

Urritik, Udaltzak informazio eta sentsibilizazio kanpaina abiarazi du, ekimenaren helburua, prozesu parte-hartzaileko faseak eta Muskizko herritarren proposamenak Udaltzari nola helarazi ezagutarazteko.



Pobeñako biztanleentzako lokala

Pobeñako antzinako komunak egokitze-ko lanen esleipena onartu du Udalak, Auzokoen Elkarte biltzeko lokal gisa erabili ahal izateko. Orokorrean, 41.700 euroko inbertsioa egin da, eta egingo diren lanak erabili gabe zegoen lokala erabat birgaitze-ko gauzatuko dira. Lanen barruan, teilatua konponduko da, baita erretanak eta zorrotanak ere, eta barruko espazioa berriro egituratuko da, biltzeko gune garbia erdiesteko eta komuna bananduta egoteko.



Ingurumenarekiko kontzientzia pizteko azoka

Udalak modu aktiboan hartu du parte Ehizaren, Arrantzaren eta Ingurumenaren X. Azokan; izan ere, karpa bat instalatu zuen, haurrentzako sukaldaritza osasungarriari eta nekazaritzari buruzko tailerrak emateko. Gainera, muskiztarren kontzientziazioa areagotzen lagundu du, eta, horretarako, 4.000 LED bonbilla banatu, eta energia berriztagarriari buruzko gunea egokitu du.



Argiteria, herritarren eskaerei erantzunez

Carrascal auzoan argi-linea berri bat instalatzeko lanean ari da Udaltza, baita LED motako 39 luminaria jartzeko ere, muskiztarrek gabeziak dituztela adierazi duten lau gunetan: Giba Fregenal eta Memerea kaleen elkargunean, N-634 errepidea El Crucero gunetik pasatzen den eremuan, Autonomia kalean, eta kiroldegiaren eta Kultur Etxearen inguruko auzo berrian. Bi proiektu horien baterako aurrekontua 64.400 eurokoa da.



Baranda berria Las Acacias kalean

Irailaren amaieran, zonalde horretako biztanleen eskaerei erantzuteko asmoz, Las Acacias kalean altzairu herdoilgaitzeko baranda jartzeko lanak amaitu dira. Horri esker, adinekoen edota zailtasunak dituzten pertsonen irisgarritasuna hobetzeaz gain, aldapan erortzeko arriskua saihestuko da.



Muskizek 30.000 euro inbertitu ditu ikastetxeen mantenimenduan

Muskizko Udalbatzak 30.000 euro inbertitu ditu Ikastola, BHI ikastetxea eta Cantarrana eskola mantentzeko lanak betearazteko. Lan gehienak hondatutako erradiadoreak eta komunak ordeztzeko, ikasgelak margotzeko, eta ihesak nahiz ateak konpontzeko egin dira. Hala ere, partida horretan, eraikuntzen kanpoko eta teilatuetako lanak ere sartu dira.

Ikastolan eta Muskizko Bigarren Hezkuntzako Institutuan, batez ere erabileraren ondorioz hondatutakoak mantentzeko lanak egin dira; Cantarrana eskolaren kasuan, aldiz, partida bat erreserbatu da, teilatuetako erretenak konpontzeko eta duela gutxi instalatutako karparekin komunikatzen duen lehen hezkuntzako eraikuntzako atean polikarbonatozko teilatua jartzeko.



Muskiz Gazte Project, sei hilabeteko ibilbidea

Muskiz Gazte Project programak sei hilabete bete ditu meztaritz-udalerrian, eta Muskizko Udala zein Egurre enpresa (proiektu hori abiarazteko arduraduna) oso pozik daude erdie-tsitakoa ikusita. Honakoa lortu dute: udalerriko gazteen arteko bitartekari-taldearen presentzia finkatzea, lonja bateko erabiltzaileen sentsibilizazioa, biltzeko beste lokal baten eta eraikin bereko komunitatearen arteko akordioa, eta lonjaren aurkako egintza judizialak hasi zituen komunitatearekin harreman zuzena ezartzea.



Egokitutako Garraioaren zerbitzua bermatu da

Urtero, batez beste, 13.000 asistentzia egiten dira, eta, horren haritik, Udalak mugikortasun urriko pertsonak garraiatzeko zerbitzua eskaintzen duen kontratua luzatu du. Duela zazpi urtetik eskaintzen den programa sendotu egin da, eta 77.750 euroko zenbatekoa esleitu zaio. Zerbitzu hori ematen duten langileek hileroko 1.100 asistentzia egiten dituzte batez beste, irteera erregularrak, ohikoak eta noizbehinkakoak kontuan hartuta. Respiroz zentrorra joateko eguneroko garraioa eta Adizmi elkarteak antolatutako aisialdiko jardueretan parte hartzen dutenen asteburuetako laguntza eskatzen dira gehien.



Hiltegi zaharra birgaitzeko lanak

Udalak 42.000 euroko partida bideratu du hiltegi zaharra birgaitzeko; horrela, hurrengo asteetan hasiko diren lanak amaitzean, udal eraikina jatetxe gisa ustiatuko da berriro ere, administrazioak baimena eman ondoren. Manuel María de Smith Ibarrek eraikitako eraikina bigarren aldiz birgaituko da, eta oraingoan honako lanak egingo dira: fatxada berritzea eta iragazgaitzea, komunak egokitzea, sarreran arrapala instalatzea, eta iturgintza eta elektrizitatea hobetzea. Lehenengo lanak langabe muskiztarrek egin zituzten, Forlan erakundeak enplegu programen barruan.



Argi eraginkorrak auzo guztietan

Ingurumenari dagokionez eraginkorrak diren argiak jarriko dira Pobeña, Las Acacias, Oiankas, San Julián de Musques, La Casería eta La Rabuda auzoetan eta Autonomiako, San Juan Elizako eta Ibaiganeko zonaldeetan. Muskiz LEDeko kale-argiz hornitzeko bigarren fasean, sodioko presio altuko, halogenuro metalikoko eta, hala egonez gero, merkurioko baperezko 759 luminaria ordeztuko dira. Udalaren arabera, guztira, 570.000 euro inbertituko direla aurreikusten da, udalerriko kale-argi guztiak ordeztzeko. 2014an egindako lehenengo fasean 232.000 euro inbertitu ziren, eta, bigarren honetan, aldiz, 280.000 euro inguru inbertituko dira.



7.700 euro, babesgabeenak integratzen lan egiten duten zortzi elkarterentzat

Muskizko eta Bizkaiko zortzi elkartek Udalak emandako 7.732 euro jaso dituzte, dirulaguntza gisa; hain zuzen ere, babesik gabeko kolektiboen prebentzio eta integrazio programak eta jarduerak gauzatzen dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeak dira zortziak.

Muskizko Emakumeen, Adinekoen, Erretiratuen eta Pentsio-

dunen elkarreak, Alez-Ale (Iparra-Hegoa elkartasun taldea) elkarreak eta Adizmi (desgaitasuna duten pertsonen aldeko Meatzaldeko senideen elkarrea) elkarreak izan dituzte dirulaguntzak eskuratzeko deialdi honetako puntuazio altuenak. Horiek guztiek udalerririkiko lotura nabaria dute. Bi proiektu soilik geratu dira dirulaguntza jaso gabe.



Edateko uraren kanalizazio berriak La Campan

Udala La Campa auzoko edateko uraren kanalizazioa hobetzeko lanak egiten ari da. 14 etxebizitzari eragiten dieten lan hauek 100.000 euroko inbertsioa dakarte. Edateko uraren hoditeria denbora igaro ahala hondatu da, eta hornikuntzari eragiten dioten ihesak dituzte. Hortaz, Udaltzatzen 700 metro linealeko kanalizazioa eta etorkizuneko mantentze-lanak erraztuko dituzten kutxatila berriak instalatzeko lanak esleitu ditu.



Elkarrizketa



Muskizko Otsoak Tenis Kirol Elkarteak, dibertsioa beste edozeren gainetik

Muskizko Otsoak Tenis Kirol Elkarteak 1999. urtean sortu zen, eta, hasieran, erabilgarritasunari buruzko kontuengatik egin zen. Alde batetik, udalerriko eskolak kiroldegian ematen zituen teniseko ikastaroak formalizatu behar zituen, eta, bestetik, ideia horren sustatzaileek diru-laguntzak eskuratzeko aukera izan, eta txapelketak antolatu behar zituzten, eguneroko jarduera mantentzeko beharrezkoak ziren diru-sarrerak lortu ahal izateko. Zazpi urte geroago, Muskizko Tenis Elkarteak kategoria guztietako ordezkariak dauzka, eta haur zein helduek ondo pasatzea lortzen duen eskola da.

K/ Zein da Muskizko Otsoak Tenis Kirol Elkartearen helburua?
O/ Helburu nagusia... gozatzea eta ondo pasatzea! Tenis-pistan sartzean, ikasleek kirolaren funtsezko oinarriak ikasi behar dituzte, baita besteekin harremanak izaten ere. Hori guztia modu dibertigarrian egiten da.

K/ Zein da eskolaren filosofia, esaldi batean?
Pistatik ateratzean, ikasleek itzultzeko eta hurrengo egunean berriro gozatzeko gogoak daukate.

K/ Zeintzuk dira urteko jarduerak nagusiak?
O/ Bi txapelketa antolatzen ditugu. Lehenengoa Iñaki Lambarri Goñiren oroimenezkoa da; izan ere, Muskizko kirolaria zen -tenis eskolako ikaslea-, eta duela hiru urte ezustean joan zen. Bigarrena San Joan jaiaren inguruan egiten da, eta adin guztietakoek hartzen dute parte (benjaminetatik betaranoetara), gizezkoen eta emakumezkoen

kategorietan. Aurten, XII. edizioa egin dugu.

Gainera, benjaminek, kimuek eta infantilek Foru Aldundiak eta Bizkaiko Tenis Federazioak batera antolatzen duten eskola-kirolleko ligan hartzen dute parte. Geuk ere gure liga propioa daukagu, eta, bertan, klubeko kideek hartzen dugu parte.

K/ Zeintzuk dira zuen helburuak?
O/ Oso sinpleak dira. Oinarrizko tenisa irakasten jarraitu nahi dugu. Txapelketa irekiak eta barnekoentzako ligak antolatzeko, parte-hartzaileek kirol honekin gozatu dezaten. Ikasleek, jokatzen duten bitartean ikastea, eta teniseko eskolan egon diren guztiek edota teniseko klubarekin nolabaiteko harremana izan dutenek oroitzapen ona izatea.

POSTONTZIAN UZTEKO PARTE-HARTZE KUPOIAK



IZENA _____

ABIZENA _____

HELBIDEA _____

NAN _____

TELEFONOA _____

IRADOKIZUNA _____



Magdalena kalea hobetzeko lanak

Magdalena kalean bizi diren herritarren eskaerei erantzuteko asmoz, eta hainbat auzo hobetzeko politikaren barruan, Udaltzarak espaloia berritu, horma birgaitu eta margotu, lorategiak egokitu eta herriko altzariak ordeztu nahi ditu. Hasteko, futbolzelaiko belar artifiziala kale horretako jardinerak mantentzeko erabili da.